

xume bizitza aukeratu, beste batzuek
bizitzeko aukera izan dezaten



HAURRAK

KANPAINA INSTITUZIONALA 2012-2013

Edukia

Animatzailearen Gida

HAURRENTZAKO material
didaktikoen aurkezpena

3

Ikus-entzunezkoari buruzko jarduera

Ezin dugu astirik galdu

6

Animatzaile-hezitzaileak kontatzeko ipuina

Serafinen magia

11

Ipuina

Erregearen ministroa

17

Ipuina

Eskumuturreko beltza

23

Bihotzeko otoitza

29



HAURRENTZIAKO material didaktikoen aurkezpena

Bizi garen mundu honetan gero eta altuagoak dira desberdintasun sozialen hormak. Lan duina eta egonkorra lortzeko bideak ixten dituzten hormak. Gero eta gaindiezinagoak dira isolatuta eta, geureari begira, geure baitan itxita bizitzera garamatzaten hormak. Horrelako munduan, Cáritasek, kristau komunitatearen izenean, ekonomia eta gizarte eredu berri bat du amets eta horren alde egin nahi du lan, hormak eraiki ordez bota egingo dituen.

Horretaz kontzientzia hartu eta sentsibilizatzeko, joan den urtean kanpaina bat egin zuen Cáritasek goiburu honekin: *“Xume bizitza aukeratu, beste batzuek bizitzeko aukera izan dezaten”*. Aurtengo kanpaina eta material didaktikoak ere ildo horretatik doaz, hau da, xume bizitza, ekonomia eta gizarte eredu berri bat posible izan dadin.

Kontsumo-gizarte hau mugiarazten duena, gaur egungo eredu ekonomikoa, hauxe da: askok ederki bizi nahi dute munduko beste toki batzuetan edo geure herrian bertan pobre bizitzera kondenatuta daudenen lepotik, eta, gainera, planeta kutsatuz eta hondatuz, orain arte sekula ezagutu ez den bezala.

Aberatsen moduan bizi nahi horrek krisi ekonomiko globalera eraman gaitu, gure ahalbideen gainetik gastatu, xahutu eta zorpetu garelako. Eta beti bezala, bizimodu horren ondorioak sufritzen dituztenak gizarte-kolektibo babesgabe eta ahulenak dira, horiek dira krisia ordaintzen dutenak: langabezia, murrizketak gastu sozialetan, etab.

Errealitate horren aurrean, Cáritasen Kanpainak XUME BIZITZEA proposatzen du, beste batzuek bizitzeko aukera izan dezaten. Bada garaia geldiune bat egin eta geure buruari zintzo galdetzeko: Aberatsen moduan bizi nahi dut ala xume bizi nahi dut, bizitza DUINA izateko behar denarekin bakarrik?

Galdera horri emandako erantzunak eragina izango du lana ulertzeko moduan (*zertarako egiten dugu lan?*), eta besteekiko harremanetan (*gure ongizate munduan itxita bizi gara edo komunitatea sortzeko irekita gaude?*).

Xume bizitza ez da kontu material hutsa, gauza gutxi edukitzearekin konformatzea, pertsonaren izate osoa hartzen duen zerbait da. Bizi AUKERA bat egitea esan nahi du; KONPROMISO pertsonala da, Eredu Ekonomiko eta Sozialak sustatzen dituen balioen KONTRA bizitzekoa, ebanjelioko xumetasunaren balioa praktikan jarritz, horrek esan nahi duen guztiarekin, hau da, gizatasuna kendu eta bizitza pertsonalean eta harremanetan funtsezkoa eta garrantzizkoa den guztitik urruntzen gaituena alde batera uztea, mundu hobe bat posible egiteko, “justiziaren bizileku izango diren zero-lur berriak egiteko” (2P 3, 13).



Hemen eskaintzen diren material didaktikoen helburua kanpainen landutako ideiak haurrei ulertaraztea da, beren gaitasunetara eta haiek bizi diren errealitatera egokitzen saiatuz. Asmoa da haurrak konturatzea haien laguntza eta elkartasuna behar dituen mundu batean bizi direla, eta horretan lanean has daitezkeela, inguru hurbiletik hasita.

Baina horretarako, ikusarazi behar diegu helduen munduan horrenbeste sufrimendu eta pobrezia ekarri duten jarrera eta portaeren haziak ezabatu beharko dituztela, horien ondorioz baitago laguntza eta elkartasun behar handia.

Material didaktiko hauek tresna pedagogiko, praktiko eta errazak izan nahi dute, eta helburua hau da: haurrek kontzientzia hartzea eguneroko inguru hurbilean mundu hobe bat eraikitzeko ahalmena badutela, ekintza txiki eta errazen bidez. Tristura alaitasun bihur dezakete, bakardadea laguntasun, malkoak kontsolamendu... Horrela bakarrik izango dira munduarentzat argia (Mt5, 14), beste bizimodu bat posible dela ikusiko dute.

Ondoren, Kanpaina honen mezu eta edukiak haurrekin lantzeko materialak eta proposamenak aurkeztuko ditugu:

Material didaktikoak

Haurrentzako kanpainaren ikus-entzunezkoa

Ikus dugu astirik galdu


Power pointeko ikus-entzunezko honen helburua haurrei modu erakargarri eta motibagarrian kanpaina honen mezua helaraztea da. Cáritasekin lan egiteko gonbidapen bat da, mundu hobe baten alde egiteko, gure inguruan bizi diren pertsonekin solidarioak izateko, ekintza xume baina baliotsuak burutuz. Cáritas eta bere esentzia aurkezteko modu bat ere bada. *(Gutxi gorabeherako iraupena: 7 minutu.)*



Ikus-entzunezkoari buruzko jarduerak

Ikus dugu astirik galdu

Behin ikus-entzunezkoa ikusita, jarduerak hori eskaintzen da solasaldirako galderekin eta proposatzen den jokoarekin ikus-entzunezkoaren edukian sakontzeko, eta haurren konpromiso eta inplikazioa sustatzeko, inguru hurbilago batean mundu hobe bat posible egiteko lanean, haiek beren ekintza eta izateko moduarekin eragin dezaketen eremuan.



Ipuina Serafinen magia

4 eta 7 urte bitarteko hurrekin lantzeko.
(Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako lehenengo zikloa)



Ipuin honen eta horrekin batera doazen jardueren helburua hauxe da: haurrak konturatzea inguruan daudenei laguntzeko eta onura ekartzeko daukaten gaitasun handiaz. Haien inguruan gertatzen denari arreta jartzeko eta ikusten dituzten arazo edo beharriaren aurrean axolagabe ez geratzeko gonbidapena da.

Ipuina Erregearen ministroa

7 eta 11 urte bitarteko hurrekin lantzeko. (Lehen Hezkuntza)

Ipuin honen etaosatzen duten jardueren bidez, haurrari Kanpainaren lehenengo zatiaren leloari buruzko hausnarketa planteatu nahi diogu: **“Xume bizi-
teza aukeratu...”** Nahi duguna da haurra bere kabuz konturatzea zoriontsuen egiten gaituzten gauzak ez direla materialak, baizik eta diruz erosi ezin direnak, besteek doan eskaintzen dizkigutenak, bizitzak eta naturak egunero oparitzen dizkigunak. Bizitzan benetan garrantzia duenari buruzko ondorioak ateratzen lagundu nahi diegu, kontuan izan dezaten.




Ipuina Eskumuturreko beltza

7 eta 11 urte bitarteko hurrekin lantzeko. (Lehen Hezkuntza)

Ipuin honen eta jardueren helburua da haurrei beste haur batzuen lekuan jartzen laguntzea. Munduko beste leku batzuetan edo beharbada beregandik hurbil, haur batzuek gosea, pobrezia, beharriana, eskubidegabezia eta abar sufritzen dituzte. Une batez bere azaletik irten eta berak daukana ez daukan beste baten azalean jartzeko ariketa egiteko eskatuko diogu. Eta horren bidez, Justiziarekin konprometitutako bizi-estilo solidario bat izateko hausnarketa eta inplikazio pertsonala eragin. Horren harira, Milurtekoko Garapen Helburuak aurkezteko aukera aprobetxatuko dugu, eta Justizia eskatzeak dakarren guztia. Horrela, kanpainaren lemaren bigarren zatiari ekingo diogu eta landuko dugu: **“Xume bizi-
teza aukeratu, beste batzuek bizi-
teko aukera izan dezaten”**.

BIHOTZEKO otoitza

Otoitz hau eskaintzen dugu haurrek bere egin dezaten, eta haien baitan bizi den eta laguntzen dien Harekin elkarrizketa erraz eta xume bat izan dezaten. Hori da bihotz oneko pertsonak izateko bidea erakutsiko dien barne Maisua.



Ikus-entzunezkoari buruzko jarduera

#Zin dugu astirik galdu

#Elkarrizketarako galderak

1. Ikus-entzunezkoa ikusi eta gero, gogoratzen duzu zeintzuk diren gure mundua arriskuan jartzen ari diren pertsona motak? Besterik gehituko zenuke?
2. Zer eragiten dute munduan pertsona horiek? Zer pentsatzen duzu zuk izateko eta jarduteko modu horretaz?
3. Badakize zer den Cáritas eta zer egiten duen?


(hezitzaileak Cáritasi buruzko informazio gehiago emango du, eta adibide bezala jarriko du hurbilen dagoen parrokiako Cáritasek zer lan egiten duen, edo inguru horretan Elizbarrutiko Cáritas garatzen ari den proiekturen bat.)

4. Gogoratu ikus-entzunezkoa eta esan zeintzuk diren Cáritasek mundu hobe bat egiteko behar dituen pertsonak. Besterik gehituko zenuke?
5. Zein ekintza zehatz, txikiak izanda ere, burutu ditzakegu aste honetan mundu hobe baten alde egiteko, etxean, ikastetxean, lagunekin, familian, eta abar?

(Taldeari jarriko zaion erronka guztien artean 32 ekintza zehatz proposatzea izango da. Horiek arbela batean edo denek ikusteko moduko orri handi batean jasoko dira.)

Jolasa: Mundu hobe baten bila

4 pertsonako taldeak egingo dira. Talde bakoitzak xake edo dama jokoan aritzeko taula bat egingo du, grapa edo zelo bidez bi folio elkartzuz. Taula horren gainean mapamundiaren silueta marraztuko dute, eta zuriz dauden 32 laukietan aurreko galderan guztien artean emandako 32 ekintzetako bakoitza idatziko dute labur. Taula honela geratuko da:



Gero fitxak egingo dira. 12 fitxa borobil kolore argiko kartulinaz eginda, eta beste 12 kolore ilunago bateko kartulinaz eginda.

Kolore argiko fitxen gainean, bakoitzean, mundu hobe baten aldeko lanean dabiltzan pertsona mota desberdin bat idatziko da.

1. Pertsona solidarioak.
2. Zailtasunetan laguntzen duten pertsonak.
3. Bidegabekeriaren aurka egiten duten pertsonak.
4. Beharrez handiena dutenak zaindu eta babesten dituzten pertsonak.
5. Besteen arazoez arduratzen diren pertsonak.
6. Lagunik ez daukaten horien lagun egiten diren pertsonak.
7. Elkar barkatzen dakiten pertsonak.
8. Partekatzen ikasten duten pertsonak.
9. Besteei alaitasuna kutsatzen dieten pertsonak.
10. Zeruan eta guztion bihotzean bizi den Jainkoarengan sinesten duten pertsonak.
11. Elkarrekin bizitzen dakiten pertsonak.
12. Erosotasunen mundutik irten eta txarto pasatzen ari direnei laguntzeko konpromisoa hartzen duten pertsona ausartak.



Kolore ilunagoko fitxen gainean, mundua arriskuan jartzen duten pertsona motetako bat jarriko da bakoitzean:

1. Pertsona zeken eta diruzaleak.
2. Besteak sufriarazi eta gaizki tratatzen dituztenak.
3. Partekatu nahi ez duten pertsonak.
4. Besteak engainatzen dituzten pertsona faltsuak.
5. Beren buruan baino pentsatzen ez duten pertsona berekoiak.
6. Besteak indarrez menderatu nahi dituzten pertsona oldarkorrak.
7. Lapurtzen duten pertsonak.
8. Besteekiko boterea haien mesederako erabili nahi duten pertsonak.
9. Pertsona bihozgabeak.
10. Gogoia ematen diena baino egiten ez duten pertsona gutziatsuak.
11. Pertsona ez solidarioak.
12. Pertsona fanatikoak, erradikalak.




Joko hau Dama jokoa bezalakoa da, arau berak jarraitzen ditu. Jokatzen hasteko, taldeko kideek bi bando osatuko dituzte, eta elkarren aurka jokatuko dute. Zotz egingo da ea nori egokitzen zaion bando bakoitzean.


- Mundu hobe bat egiteko fitxa argiak dauzkatenak, munduan hainbeste sufrimendu sorrazten duen kontrako bandoaren fitxa guztiak lortzen saiatuko dira; horrela, munduan gaizkia egiteari uztera behartuko dituzte.
- Munduan sufrimendua eragiteko fitxa ilunak dauzkatenak, justiziaren alde egiten duen kontrako bandoaren fitxa guztiak lortzen saiatuko dira, eraldatu eta beren bandora bildu daitezten.




Dama jokoaren arau berak erabiltzen dira. Bando bakoitzeko fitxak honela jartzen dira taulako fitxa ilunetan:



Fitxa bat taularen kontrako aldean dagoen azken laukira heltzen denean, orduan Dama bihurtzen da. Hori gertatuko litzaioke adibide gisa jarri dugun aurreko jokaldiko fitxa zuriari. Orduan erditik tolestuko zenuke, besteengandik bereizteko.




Kontrako fitxa bat eliminatu ahal izateko, zure aurretik dagoen hurrengo lauki ilunean egon behar du; orduan, fitxa aurkariaren atzean dagoen laukia hutsik badago, zure fitxa kontrakoaren atzetik saltatu ahal izango duzu, eta zurea hutsik zegoen laukian utzi. Horrela, zure ondoan zeneukan fitxa aurkari hori eliminatuko duzu, bi lauki aurrera eginez.



Salto hori eginda eta zure fitxa lauki hutsean utzita, konturatzen bazara hurrengo laukian badagoela fitxa aurkari bat, atzean lauki huts bat duena, bigarren salto bat egin ahal izango duzu, eta bigarren fitxa aurkari hori eliminatu, zure fitxa lauki hutsean utziz.

Fitxa aurkari bat eliminatzen duzun bakoitzean, beste txanda bat jokatzen jarraituko duzu.

Cuando una ficha llega a la casilla última que está en el extremo opuesto del tablero, entonces se convierte en Dama. Es lo que le ocurriría a la ficha blanca de la jugada anterior que te hemos puesto como ejemplo. Entonces la doblarás por la mitad para distinguirla de las demás.



Partidaren txanda batean kontrakoaren fitxa bat eliminatzen aukera baduzu, baina ez bazara konturatzen, eta horren ordez beste jokaldi bat egiten baduzu, eta kontrako bandoko jokalaria konturatzen bada, orduan zure fitxa geratuko da eliminatuta, eta zure aurkariak berarentzat gordeko du.

Aurkariaren fitxa guztiak lortu dituenak irabaziko du partida. Mundua arriskuan jartzen dutenen bandoak irabazten badu, beste partida bat jokatuko da, eta horrela behin eta berriro, mundu hobe baten alde egiten duen bandoak irabazi arte.


Partida asko galdu arren, nahikoa da behin irabaztearekin, helburua lortzeko. Bizitza bera bezalakoa da, mundu hobe baten alde aritzeak ez

gaitu porroten aurrean makurrazten; beti egiten dugu aurrera helburua lortu arte... gaizkiak ez dauka azkeneko hitza munduan, ongiak eta justiziak irabazi egingo dute azkenean. Hori da mugitzen gaituen kristau ltxaropena, mundu hobe baten alde animoa galdu gabe lanean jarraitzeko adorea ematen diguna.

Dama bat aurrera edo atzera mugitu daiteke, nahi beste lauki, baina beti diagonalen.

Fitxa aurkariak eliminatzen, lehen esan dugun bezala funtzionatzen du, baina oraingoan kontrakoaren ondoko laukian egon beharra dago salto egin ahal izateko. Hau da, diagonal berean fitxa aurkaritik banatzen duten 2, 3, 4 edo 5 lauki libre baditu, eta fitxa aurkariak atzean lauki huts bat badu, Damak salto egingo du dagoen lekutik, eta atzetik hutsik zegoen laukian kokatuko da, horrela fitxa aurkaria eliminatuz.

Lauki berri horretan kokatuta, salto egiteko aukera daukan beste fitxa aurkari bat duela ikusten badu, jokaldi berean egingo du.





Proposamena: Konpromisoaren erronka

Behin aurreko jokoak amaituta, hezitzaileak motibazio hau emango die:

"Bestekin nola jokatzeko duzuen ikusita, zuek ez duzue mundua leku arriskutsu bihurtzen duten pertsonen modukoak izan nahi, eta beraz, talde bakoitzari konpromiso bat jarriko diot. Zuriz dauden 32 laukietan 32 konpromiso zehatz dituzue idatzita, denon artean pentsatutakoak, mundu leku hobea izan dadin lortzeko.

Hala erabakitzen duen taldeak bere joko-taula horman esekiko du eta taldeko lau kideek, hilabeteko epean, idatzita dauden 32 konpromiso horietatik ahalik eta gehien betetzeko konpromisoa hartuko dute. Taldekide batek konpromiso horietako bat burutzen duenean, taulatik ezabatuko du, bere izena eta bete zuen data jarriko ditu (taldeko beste batzuek gauza bera egin badute, beren izena eta data ere jarriko dituzte ezabatutako lauki berean).

Hilabetea amaitzen denean, talde bakoitzeko kideek aukeratu egingo dituzte hobekien sentiarazi dieten eta beste pertsonengan ongizate, poztasun edo zorion handiena lortzen lagundu dieten helburuak, bete dituzten guztien artean. Gero, gainerakoei kontatuko diete nolako izan zen esperientzia, nola sentitu ziren."

Azken jarduerak: Ebanjelioaren esploratzaileak

Hezitzaileak Ebanjelioak banatuko ditu taldeetan. Talde bakoitzak 10 zita ebanjeliko bilatuko ditu; horien bidez Jesus agertuko da mundu hobe bat eraikitzen laguntzeko gauzak esan eta egiten... Jainkoaren Erreinua lurrean.

Zelo edo grapa bidez lotutako bi folioren gainean, orri biak hartzen dituzten 10 lauki handi marraztuko ditugu. Lauki horietan aukeratutako 10 eszena ebanjelikoak marraztuko dira, edo Jesusek horietan esaten dituen hitzik garrantzitsuenak eta eszenak laburbiltzen dituztenak idatzi.

Hori eginda, beren taula esekiko dute horman jarri zutenaren ondoan, eta gainerako taldeei azalduko dizkiete aurkitu dituzten zitak.



Animatzaile-hezitzaileak kontatzeko ipuina:

Serafinen magia

Serafin txikia oso pozik zegoen bere aitona Ferminekin.

Bere amak esaten zionean:

— Aitona Fermin bisitatzera goaz.

Ferminen bihotza emozioz betetzen zen, eta indarrez hasten zen taupaka, **POM-POM, POM-POM** eginez.

(Animatzaileak hurrei galdetuko die, nola egiten zuen Serafinen bihotzak? Eta haur guztiek erantzungo dute **POM-POM, POM-POM**, eskua bularrean jarrita.)



Fermin aitonak asko maite zuen Serafin, eta bere bihotza ere pozez betetzen zen ikusten zuenean, eta indarrez hasten zen taupaka, **POM-POM, POM-POM** eginez.

(Animatzaileak hurrei galdetuko die: nola egiten zuen Serafinen bihotzak? Eta haur guztiek erantzungo dute **POM-POM, POM-POM**, eskua bularrean jarrita.)





Serafinek asko maite zuen bere aitona.
Berarekin egotea gustuko zuen,
bere istorio bereziak entzutea,
eta prestatzen zizkion ustekabeak aurkitzea.
Bazekien, gainera, bere alkandoraren ezkerreko
poltsikoan magia sekretu bat zeukala gordeta,
eta Serafinek behar zuenean soilik erabiltzen zuela.



Egun batean Serafin triste eta penaz bazegoen,
bere aitona bat-batean agertzen zen gutxien espero
zen lekuan, eta esaten zion:

— Lasai, Serafin, medikamendurik onena dakarkizut.

Eskua alkandoraren ezkerreko poltsikoan sartu
eta bertan gordeta zeukan magia betetzen zuen,
masaila laztantzen zion eta gero istorio dibertigarri bat kontatzen zion.

Bat-batean, Serafin pozez betetzen zen eta pentsatzen zuen:
“Zein magia ona daukan nire aitonak bere alkandora berrian!”
Eta beren bihotzek indar handiagoz egiten zuten taupa **POM-POM, POM-POM.**

(animatzaileak haurrei galdetuko die: nola egiten zuten bihotz biek batera?) Eta haur guztiek erantzungo dute are ozenago, **POM-POM, POM-POM**, eskua bularrean jarrita.)

Egun batean Serafin negarrez ari bazen,
bere aitona bat-batean agertzen zen gutxien espero zen lekuan, eta esaten zion:

— Lasai, Serafin, medikamendurik onena dakarkizut.

Eskua alkandoraren ezkerreko poltsikoan sartu
eta bertan gordeta zeukan magia betetzen zuen,
masaila laztantzen zion eta gero istorio
dibertigarri bat kontatzen zion.

Bat-batean Serafin kontsolatuta sentitzen zen,
eta negar eginarazi ziona ahaztuta geratzen zen,
eta pentsatzen zuen: “Zein magia ona daukan nire aitonak bere alkandora berrian!”
Eta beren bihotzek indar handiagoz egiten zuten taupa **POM-POM, POM-POM.**

(Animatzaileak haurrei galdetuko die: nola egiten zuten bihotz biek batera?) Eta haur guztiek erantzungo dute are ozenago, **POM-POM, POM-POM**, eskua bularrean jarrita.)

Egun batean, Serafin desanimatuta bazegoen zerbait gaizki irten zitzaiolako, bere aitona bat-batean agertzen zen gutxien espero zen lekuan, eta esaten zion:

— Lasai, Serafin, medikamendurik onena dakarkizut.

Eskua alkandoraren ezkerreko poltsikoan sartu eta bertan gordeta zeukan magia betetzen zuen, masaila laztantzen zion eta gero sendotasunez esaten zion berak asko balio zuela, eta banillazko izozki bat hartzera gonbidatzen zuen. Bat-batean, Serafin animatu egiten zen eta pentsatzen zuen: “Zein magia ona daukan nire aitonak bere alkandora berrian!” Eta beren bihotzek indar handiagoz egiten zuten taupa **POM-POM, POM-POM.**



(Animatzaileak hurrei galdetuko die: nola egiten zuten bihotz biek batera?)
Eta haur guztiek erantzungo dute are ozenago, **POM-POM, POM-POM**, eskua bularrean jarrita.)

Eta horrela, Serafin gaizki zegoen guztietan, bere aitona agertzen zen bat-batean gutxien espero zen lekutik, eta medikamendurik onena ematen zion, ordura arte dena sendatu ziona.

Egun batean, aitonak Serafin txikiari esan zion:

— Hara, Serafin, nire magia ez dago alkandoraren ezkerreko poltsikoan, baizik eta horren azpian, nire bihotzean. Eskua bihotzean jarri eta norbaiti benetan laguntzen diozunean, zeu zara medikamendurik onena, galduta zeukan alaitasuna bueltatzen diozulako. Zuk ere badaukazu magia bihotzean.

Hori entzutean, Serafin emozioz bete zen, eta bihotza bularretik irtengo zitzaiola ematen zuen, indarrez taupaka: **POM-POM, POM-POM.**

(Animatzaileak hurrei galdetuko die, nola egiten zuen Serafinen bihotzak?)
Eta haur guztiek erantzungo dute **POM-POM, POM-POM**, bihotza bularrean jarrita.)





Eta Serafinek aitonari esan zion:

— Aitona Fermin, nire magia probatu nahi dut, ikusteko ea ni ere medikamendurik onena izan naitekeen, zu bezala.

Orduan, bere aitona haur triste eta penatu batzuk zeuden leku batera eraman zuen. Serafinek eskua bihotzean jarri, eskuaz haur haien masaila ukitu eta istorio dibertigarriak kontatu zizkien, eta barrea eta alaitasuna haien bizitzetara bueltatu zen.

(Animatzaileak Serafinen papera beteko duen haur bat aukeratuko du, eta gainerako haurrek aurpegi triste eta penatua jarriko dute, edo burumakur jarriko dira. Orduan, haurrak eskua bihotzean jarriko du eta gero bere kide guztiei masaila ukituko die, leun, eta bat-batean aurpegia aldatu egingo zaie, eta irribarre egingo dute. eta guzti hori isilik, aurpegiak mimika eginez.)

Gero bere aitona haur batzuk negar batean zeuden leku batera eraman zuen. Serafinek eskua bihotzera eraman, haur haien masailak ukitu, eta anaitasunezko besarkada bat eman zien. Horrela, haur haien malkoak lehortu ziren eta kontsolatu egin ziren.

Serafin txikiaren magiak funtzionatu zuen. Eta bere bihotzak eta laguntza eman zien guztienak askoz indar handiagoz egin zuen taupa, **POM-POM POM-POM** eginez.

(Animatzaileak haurrei galdetuko die: nola egiten zuten bihotz biek batera?) Eta haur guztiek erantzungo dute are ozenago, **POM-POM, POM-POM**, eskua bularrean jarrita.)



Ordutik, Serafin, bere aitona bezala, medikamendurik onena izan zen, triste eta kontsolamendu beharrean zeuden guztiei laguntzeko prest.

José Real Navarro.

Elkarrizketarako galderak

1. Noiz egiten zuen taupa indarrez Serafinen bihotzak?
2. Noiz egiten zuen taupa indarrez Fermin aitonaren bihotzak?
3. Non zeukan gordeta magia Fermin aitonak?
4. Zergatik zen magia hori medikamendurik onena?
5. Nola ikasi zuen Serafinek medikamendurik onena izaten?
6. Noiz izan da norbaitek medikamendurik onena eman dizun azken aldia? Zer gertatu zen eta nola sentitu zinen?
7. Noiz izan da norbaitek medikamenturik onena eman dizun azken aldia? Zer egin zenuen?

Jarduera

Hurrei eskatuko zaie bakoitzak tamaina desberdinetako 10 bihotz marrazteko eta kolorez margotzeko. Gero artaziz moztuko dituzte. Hori egiten duten bitartean, hezitzaileak paper jarrai baten gainean marraztuko du aurpegi tristea daukan giza irudi handi bat, eta horman itsatsiko du.

Hurrek bihotzak egiten amaitzen dutenean, hezitzaileak egoera, arazo, beharrian, edo besteek egindako gauza txarren zerrenda bat egiteko eskatuko die, haur bati triste egotea edo gaizki pasatzea eragiten diotenak.

Hezitzaileak horman itsatsitako giza irudiaren barruan idatziko ditu. Erronka moduan jarriko die irudi horren barrualdea gutzit betetzea, egiten dituzten ekarpenekin.


Giza irudia beteta dagoenean, hezitzaileak eskatuko die esateko zein gauza on egin dezaketen haiek arazo horiek dituzten hurrei lagundu edo haien beharrak arintzeko.

Baten batek zerbait esan behar duen bakoitzean, jaiki egingo da eta eginda dauzkaten 2 edo 3 bihotz itsatsiko ditu irudiaren gainean. Helburua da giza irudia bihotzez beteta egotea, triste eta ondoezik egonarazten zioten guzti hori sendatzeko bihotzez, alegia.

Hori amaituta, hezitzaileak hurrei modu errazean azalduko die zer den Cáritas, orain egiten dutenaz baliatuz, eta gutxi gora behera hau esanez:


“Cáritas kristau talde bat da. Bere lana gaur egun okerren pasatzen ari diren pertsonen medikamendurik onena ematea da. Pertsona pobre eta behartsuei laguntzen diete, pobrezia eta beharrian egoeratik irten daitezen, eta berriro ere alai eta ondo bizi daitezen.”

Hori azalduta, hezitzaileak ondoren dagoen marrazkia entregatuko die, txartel edo kromo bezala, koloreztatzeko, eta haiek ere medikamendurik onena direla gogoratzeko.






BIHOTZEZ lagundu




Eta medikamendurik onena izango zara

BIHOTZEZ lagundu



Eta medikamendurik onena izango zara

BIHOTZEZ lagundu



Eta medikamendurik onena izango zara

Erregearen ministroa

Istori hau orain dela urte asko eta asko gertatu zen, Ekialde urruneko erreinu batean, ia-ia ozeanoa bezain handia.

Erreinu hura oso aberatsa eta oparoa omen zen. Jendea behar zuen baino gehiagorekin bizi zen, luxua eta diru-xahutzea ohikoena zen leku hartako herri eta hirietan. Bertako biztanleak lanerako baino ez ziren bizi, zoriona lortzeko gauza gehiago eta gehiago erosi ahal izateko, baina inoiz ez zirenez zorionsu izatera heltzen, beti ari ziren lanean ondasun gehiago lortzeko.

Oparotasun guzti hori Erregearen ministroetako baten atsedetik gabeko lanari esker izan zen. Ministro hura zen Erregearen zerbitzaririk fidelena. Erreinuako ekonomia antolatu eta zuzentzeko zeukan moduari esker, erreinu hura denetan aberatsena bihurtu zen.

Erregea oso pozik zegoen berarekin, eta estimu handia zion. Semetzat zeukan eta seme bezala maite zuen. Beste gauza askoren artean, jauregirik luxuzkoenetako bat oparitu zion bizitzeko, eta nahi zuen edozer gauza zeukan, oso garestia izanda ere.

Baina goiz batez Erregearen ministroa nekatuta sentitu zen. Urte asko zeramatzan etengabe lanean, atsedetik gabe, gau eta egun, orduz ordu. Burua altxatu zuen arnasa hartzeko, bere lehenengo arnasaldia urteetan! Leihotik begiratu eta eguzkia irteten ikusi zuen zeruertzean. Lehenengo aldia zen hain gauza xumeari erreparatzen ziola.

Orduan, argi horren izpi bat sartu zitzaion bat-batean begietan, belarrietatik ibili zitzaion, sudurrean kili-kili egin zion, bihotzeraino jaitsi zen eta txinparta batez piztu egin zion, barrutik argia emanez. Ordura arte bere bihotza itzalita egon zen, ilunetan, baina orduan, izpi misteriotsu horren argiarekin piztuta, Erregearen ministroak argi ikusi zuen lehen aldiz, eta konturatu zen barrutik hutsik zegoela, ez zegoela zorion izpirik.

Bere bihotzean denetik zegoen, hori izan zik. Aberastasuna, erosotasuna, ospea, luxua eta posizio sozial ona ez ziren nahikoak asebetetzeko, beraz, dena uztea erabaki zuen eta isilpean joan zen falta zitzaionaren bila; horrela egin ezean, ez baitzioten joaten utziko.

Ohar bat utzi zion idatzita Erregeari, dena azalduz, baina irakurri zuenean, Erregeak ez zuen ezer ulertu. Oso triste jarri zen, hori bai. Eta hainbeste maite zuenez, bere bila joateko agindua eman zuen.





Denbora aurrera zihoan eta inork ez zuen aurkitzen. Erregeak milioietako saria iragarri zuen aurkitzen zuenarentzat. Urtebete pasa zen Erregeak bere ministro maitearen berri izan arte. Ondo zegoela eta zorionsu zela esan zioten, nahiz eta mendiko etxola xume eta umil batean bizi. Bere etxolatik hurbil jendea xumetasunez eta anaitasunez bizi zen herrixka bat zegoen. Erreinuko herrixka bakarra zen horrela bizi zirena, behar zutena baino gehiagorik gabe.

Erregea asko poztu zen, bere gurdia prestatzeko agindua eman zuen eta martxan jarri zen, berarengana joateko. Hiru egun eta hiru gau eman zituen hara heltzen.

Ministroak errege-gurdia heltzen entzun zuenean, kalera irten zen, pozez. Besarkada bero baten ondoren, Erregeak eskatu zion berarekin itzultzeko Erreinuko Kontseilari bezala, eta hitz eman zion lanetik atsedean gehiago hartzeko aukera izango zuela.

Ministroak Erregearen eskaera onartu zuen, eta Erregea oso pozik jarri zen. Baina baldintza txiki bat jarri zion; eta hori betetzen bazuen bueltatuko zen bere Kontseilari postura, bestela ez. Baldintza oso sinplea zen: Erregeak kafe bat hartzea bere etxola xumean.

Erregeak onartu zuen, eta ministroak, oso pozik, etxolarako bidea erakutsi zion. Bertara heltzeko zubi eseki bat zeharkatu beharra zegoen; oso hauskorra zen eta amildegi baten gainean zegoen. Egunsentiko brisak zubia alde batetik bestera mugiarazten zuen, leunki.

Ministroak alai gurutzatu zuen beste aldera, baina Erregeak beldurra izan zuen eta gelditu egin zen. Gehiegi pisatzen zuen eta beldur zen; zubiak ez zuen bere pisua jasango.


Ministroak, beste aldetik, esan zion bere larruzko beroki pisutsua, bere urre gorrizko koroa, bere harribitxizko lepoko astunak, bere eraztunak, bere ezpata eta bere diru-poltsa erantzeko. Horrela, txoria bezain arina izango zen, eta banatzen zituen zubia gurutzatu ahal izango zuen.

Baina erregeak uko egin zion gainean zeraman guztia kentzeari, eta bere bizitza zoramen horretan arriskatzeari. Hori ikusita, ministroak esan zuen:

— Orduan, maiestate, itzuli berorren mundura, eta utzi ni neurean.


Eta Erregea tristatuta joan zen, bere pisu guztiarekin, eta ministroak joaten ikusi zuen, egunsentiko eguzkiak bazter guztiak bere izpiz betetzen zituen bitartean.

José Real Navarro.



Elkarrizketarako galderak


1. Nola bizi zen jendea Ekialdeko erreinu handi hartan? Zoriontsu al ziren? Zergatik?
2. Nori zor zitzaion erreinu haren oparotasuna? Nola lortu zuen?
3. Zein izan zen ministroak lehen aldiz erreparatu zion gauza xumea? Zergatik uste duzu lehenago ez ziola erreparatu?
4. Nola deskubritu zuen ministroak argi izpia?
5. Non bilatu zuen Erregearen ministroak bilatzen ari zena? Zergatik uste duzu aurkitu zuela han eta ez aurretik bizi zen lekuan?
6. Zergatik Erregeak ez zuen "pisurik" galdu nahi izan zubia gurutzatu eta bere lagunarekin elkartzeko? Zureak diren zein gauza utziko zenituzke, edo partekatuko zenituzke lagun bati laguntzeko?
7. Ministroak Erregeari esaten dizkion azken hitzei dagokienez, nolakoak dira bi mundu horiek? Zeintzuk dira ezaugarriak?
8. Zenbat eta gauza gehiago eduki, orduan eta zoriontsuago gara? Zergatik? Zein gauza edo egoerak ematen dizute zuri zoriona?
9. Zein da ipuin honek helarazten dizun mezua?
10. Zein erlazio dago ipuin honek helarazten dizun mezuaren eta Jesusen Ebanjelioko hitz hauen artean?: *"Ez pilatu mundu honetan zeuen aberastasunak, sitsak eta herdoilak jaten baitituzte hemen, eta lapurrak etortzen dira harrapatzera. Pilatu zeruan zeuen aberastasunak, han ez baititu ez sitsak, ez herdoilak jango, ezta lapurrak harrapatzera joaten ere. Zeren, zure aberastasuna non, zure bihotza han."* (Mt 6,19-21) Zein aberastasun motaz ari da hemen Jesus? Zuk ba al dituzu asko?



Erregearen ministroa ez zen zoriontsu aberatsa izanda, eta zoriontsu izateko benetako modua aurkitu zuen jendea anaitasunez bizi zen herrixka batean. Horregatik, ez zuten gauza handirik behar zoriontsu izateko, oinarritzkoa bakarrik.

Altxorraren kutxa honen barruan, egin 20 gauzaz osatutako zerrenda (momentuak, xehetasunak, gertaerak, pertsonak, besteekiko harremanak, naturan gozatu ditzakezunak), **benetan zoriontsu egiten zaituztenak, eta diruz erosi ezin direnak**. Hau da, errepasatu zure bizitzako momentu, egoera edo xehetasunak, txikiak izan arren, zoriontsu, alai edo ondo sentiarazten dizutenak. *(Esaterako, pertsona bat zure laguna izatea, zure gurasoen besarkada bat, zugatik kezkatzen den lagun baten deia, norbaitek maite zaituela sentitzea, norbaitek laguntza ematea, zure lagunekin jolastea, hondartzan egotea, mendira joatea, zure gauzez hitz egiteko norbait edukitzea, eta abar).*

Zenbatu 1etik 20ra idazten dituzun gauzak. Amaituta duzunean, partekatu zure kide guztiekin. Ondoren, bikoteka, kide batek besteari esango dio 1etik 20ra bitarteko zenbaki bat, eta horrek, mimika bidez azalduko dio zerrendan zenbaki horrekin idatzita daukana, ea asmatzen duen. Minutu eta erdi edukiko du egiteko. Gero beste kidearen txanda izango da. Horrela, beste 3 aldiz egingo duzue.



Elkarrizketarako galderak

1. Posible da zoriontsu izatea letra-zopako 20 gauzak soilik edukita, altxorraren kutxaren zerrendako bat ere eduki gabe? Zergatik? Eta alderantziz?
2. Esan zeren arabera den benetako zoriona: diruz erosten ditugun gauzena, edo diruz erosi ezin diren gauzena? Zeinetatik nahiko zenuke gehiago eduki? Zergatik?



Jarduera 2: Emergentzia nuklearra



Gure etxeetan gauza asko izan ohi ditugu, baina denak ez dira benetan beharrezkoak. Batzuetan, gauza horiek gehiegi estimatzeko arriskua dugu; inguruan ditugun pertsonak baino gehiago estimatzekoa, hain zuzen. Ikusiko dugu dauzkagun gauzetatik zeintzuk diren benetan garrantzitsuak, eta zeintzuk ez hainbeste.

Zentral Nuklear batean istripu bat egon da eta ihes erradioaktibo arriskutsu bat egon da. Hiria betiko ebakuatu beharra dago. 10 minutu dituzu zure 8 gauza hartzeko (edozein tamainakoak izan daitezke, gordeko dituzun motxila magikoa baita).

Babes zibileko autobusera igo eta hiritik ziztu bizian ebakuatuko zaituzte. Autobusean taldeko guztiok zoazte. Orain esan zer daramazuen motxiletan, eta azaldu zergatik hartu dituzuen gauza horiek, eta ez beste batzuk.

Baina errepidea moztuta dago, eta oinez joan behar duzue zuen motxilekin. Arriskutik salbatzeko pisu askorik jasan ezin duen zubi eseki bat gurutzatu beharko duzue, eta motxila magikoa izan arren, ezingo duzue barruan daramazuen guztia eraman. Motxilan daramatzazuen gauzetatik birekin baino ezingo zarete gelditu. Esan guztiei zein bi gauzekin geratuko zareten azkenean:

Elkarrizketarako galderak

1. Benetan behar al ditugu dauzkagun edo nahi ditugun gauzak?
2. Egingo al duzu zerrenda bat benetan behar ditugun gauzekin?
3. Irakurri arretaz testu hau eta komentatu zuen iritzia; esan ados zaudeten berarekin eta uneren batean sentitu duzuen hemen aipatzen den alaitasuna.

“Xumetasunez bizitzeak esan nahi du ondo pasatzeko edo pozik egoteko gauza askorik behar ez izatea. Gaur egungo arazoa da askok pentsatzen dutela gauza asko behar dituztela ez aspertu eta zoriontsu izateko. Baina gauza asko edukita ere, jostailu eta bideo-joko pila edukita ere, inoiz ez daude pozik, eta etengabe eskatu eta erosten dituzte telebistan iragartzen duten eta erakusleihoetan ikusten duten guztia. Inoiz ez daukate nahikoa, beti aspertzen dira eta.

Izan ere, gauza edo jostailu asko eduki edo oso aberatsa izateak ez du zertan bermatzen hobeto pasatu edo pozik egotea. Benetan dibertitu eta beti alai egonarazten gaituena zera da, besteei geure bihotzetan eta bizitzetan sartzen uztea, haiekin gauzak, jostailuak, ideiak eta burutapenak partekatzeak. Orduan, dauzkagun gauza materialek ez daukate hainbesteko garrantzirik, eta bihotzean lehentasunezko lekua izateari uzten diote; izan ere, lagunak eta kideak dira garrantzitsuena.

Arrazoi horrengatik, hori deskubritu dutenek ez dute askorik behar ondo pasatzeko. Guztia daukate soberan. Gauza gutxirekin baina lagun eta kide onekin, alaiago gaude jostailu eta gauza asko baina partekatzeak inor ez edukita baino. Xume bizitzea bihotzean soberan daudenak hustea da, eta laguntasunaren, hurbiltasunaren eta besteenganako giza topaketaren altxorraz betetzea. Hori irakatsi zigun Jesusek.”

Esrumuturreko beltza

Bazen behin bere gurasoek nahi zuen guztia ematen zioten neskatila bat. Denetik zeukan, ez zitzaion ezer falta. Ez zeukan kexatzeko arrazoirik, baina egia esan beti zebilen kexaka eta protestaka. Inoiz ez zeukan nahikorik, beti nahi zituen jostailu gehiago, diru gehiago, markako arropa gehiago.

Egun batez, bere aitonak, munduko leku pobretuenetako batera egindako bidaiatik bueltan, opari bat ekarri zion bertatik. Egur beltzez egindako eskumuturreko bat zen, eta etiketa bat zeukan zintzilik. Bertan herrialdearen izena jartzen zuen. Eskuan jartzen zion bitartean, aitonak zera esan zion:

— Munduko haur guztiek ez daukate zuk daukazuna. Ez ahaztu inoiz. Beharbada eskumuturreko honek gogoratzen lagunduko dizu.

Hurrengo egunean haurra ikastetxera joan zen eskumuturrekoa jarrita, konturatu gabe etiketa zintzilik zeramala. Ordura arte ezer arrarorik ez. Hala ere, zerbait ezohikoa sumatu zuen ikastetxean bazkaltzeko jatekoa erosten zuen dendara sartu zenean. Inork ez zuen ezagutu, ez agurtu. Eta okerrena zera izan zen, jatekoa eskatzera joan zenean, dendariak bere eskumuturrekoa begiratu, zintzilik zeraman etiketa irakurri, eta oso serio esan ziola:


— Zer egiten duzu zuk hemen? Hemen jartzen du herrialde oso pobre batekoa zarela, beraz, zuk ez daukazu jateko eskubiderik.


Neskatilak txantxa bat izango zela pentsatu zuen, baina gauza serio zihoan, eta protestaka eta kexaka hasi zen arren, handik kanpora bota zuten. Kanean egonda, eskumuturrekoa eta etiketa kentzen saiatu zen, baina gogoz saiatu arren ez zuen lortu. Suminduta eta jatekorik gabe, ikastetxera joan zen. Baina atetik sartzen ari zela, zuzendariak eskumuturrekoaren etiketa ikusi eta zera esan zion:

— Nora zoaz zu? Etiketan honen arabera herrialde oso pobre batekoa zara. Zuk ez daukazu eskolara joateko eskubiderik. Zuk lan egin edo eskean ibili behar duzu. Beraz, alde. —Eta bota egin zuen—.

Neskatilak pentsatu zuen mundu guztia zoratu egin zela goiz hartan. Etxerako bidea hartu zuen, ia negarrez, eta atariko atea jo zuenean atezainak zabaldu zion. Baina eskumuturrekoa ikusi eta etiketa irakurri zuenean zera esan zion:

— Nora zoaz zu? Hain herrialde pobreetako hurrek ez daukazue honelako etxe batean bizitzeko eskubiderik. Zuek etxola edo txaboletan bizi behar duzue. —Eta bota egin zuen handik—.





Neskatila guztiz etsita zegoen. Ez zuen ezer ulertzen. Ez zekien zer pentsatu. Hain nahasita egonda, polizia batzuek kale erdian ikusi eta hurbildu egin zitzaizkion. Eskumuturretik zintzilik zeukan etiketa irakurrita, serio asko esan zioten:

— Zer egiten duzu zuk hemen? Haur ilegala zara. Beraz, zure herrialdera bueltatu behar duzu. Ez daukazu eskubiderik hemen dauzkagun gauza onez gozatzeko.

Orduan, neskatilak ezin izan zuen gehiago jasan eta konortea galdu eta lurrera jausi zen. Esnatu eta bere onera itzuli zenean, konturatu zen bere etxean zegoela, bere ohean, bere pijama jantzita. Apur batez pentsatu eta zeukan nahasmendua gainditu ostean, konturatu zen amesgaizto bat izan zela, baina bizitza bezain erreal.

Egun horretatik aurrera, bere gutizia, kexa eta protesta guztiei amaiera jarri zien, eta munduko haurrek berak zeuzkan eskubide berberak izan zitzaizkion lan egiten zuten erakunde eta taldeekin aritzea erabaki zuen. Azkenean, bere aitonak emandako eskumuturreko beltza inoiz inork egindako oparirik onena izan zen.

José Real Navarro

Elkarrizketarako galderak

1. Nolakoa zen neskatila bere aitonak eskumuturreko beltza oparitu aurretik?
2. Nora bidaiatu zuen neskatilaren aitonak?
3. Zer esan zion bere aitonak eskumuturrekoa ematerakoan? Zein asmorekin esan ziola uste duzu?
4. Zein lau gauza gertatzen zaizkio amesgaiztoan? Zer iruditzen zaizu agintariak munduko haurrak gosez, eskolara joan ahal izanik gabe eta txaboletan edo kalean bizitzen uzteari?
5. Amesgaiztoan gerta zitezkeen antzeko gauza gehiago bururatzen al zaizkizu?
6. Zer ondorio ditu amesgaiztoak neskatilarengan? Zergatik uste duzu horrela aldatzen dela?
7. Ipuineko neskatilak denetik zeukan, baina inoiz ez zegoen pozik. Zergatik uste duzu hori gertatzen zitzaiola? Ezagutzen dituzun haur askori gertatzen al zaie hori? Zuri gertatzen al zaizu, gutxi ala asko?

Jarduera 1: Milurtekoko Garapen Helburuak aurkezteko

Hezitzaileak 2 zentimetroko zabalera eta folio bateko zabalaren besteko luzera inguru daukaten paper-zatiak egingo ditu. Zati horiekin eta grapagailu batekin, eskumuturrekoak egingo ditu bere taldeko haurrentzat.

Zati horietako bakoitzean 1etik 7ra bitarteko zenbaki bat egongo da idatzita. Haur kopuruaren arabera, errepikatu egingo da 1etik 7rako zerrenda. Behin eginda, banatu egingo dira, bakoitzak berea jar dezan eskumuturrean. 7 zenbakia daukaten eskumuturrekoak beti neska bati emango zaizkie.

Behin eskumuturrekoak banatuta egonda, hezitzaileak esango die une honetan beren bizitza guztiz aldatu dela, dagoeneko ez direla haiek, eta ez direla orain arteko lekuan bizi. Berrito jaio dira, leku desberdin batean eta familia desberdin batean. Eskumuturrean daramaten zenbakia beren nortasun berriak ematen diena da. Ondoren, zenbaki bakoitzari dagozkion nortasunak irakurriko dizkie:

1. Muturreko pobrezian bizi den familia batean bizi zara. Txabola batean bizi zara eta hiriko zabortegetatik jasotzen duzuenetik bizi zarete.
2. Zure familia oso pobrea da, ez dauka jateko dirurik ere, eta egunero gosea pasatzen duzue. Desnutrizioa duzu eta indarrrik ez.
3. Oso medikamentu gutxi dago, eta oso garestiak dira. Zure familiak ez dauka dirurik, oso pobrea delako. Edozein gaixotasun izanda ere, bizitza arriskuan dago.
4. Bizi zaren lekuan ez daukazu eskolara joateko aukerarik; oso urrun dagoelako eta diru asko balio duelako. Familia pobre batean jaio zara, eta ezin dizkizute ikasketak ordaindu. Horregatik, txikitatik nekazaritzan lan egiten duzu.
5. Herrialde oso pobre batean bizi zara; ia ez dago ospitalerik, ez medikurik. Umezurtz geratu zara; zure ama erditzean hil zen zure ahizpa jaiotzean, ezin izan zuelako ospitalera joan, eta zure aita bere gaixotasuna sendatzeko medikamentu faltagatik hil zen. Kolean bizi zara, eskean.
6. Zure gurasoak nekazariak ziren eta soroan hazten zutenetik bizi ziren, baina errekaen kutsadurak eta aldaketa klimatikoak sortutako lehortekak dena hondatu du, eta hirira joan behar izan duzue. Han kartoia eta txatarra bilduz bizirautez duzue.
7. Herrialde oso matxista batena jaiotako neskatila bat zara. Emakumeak diskriminatuta daude eta ez dute gizonen pareko tratua jasotzen. Ez dituzte eskubide berberak. Emakumea zarenez, ez dizute eskolara joaten uzten, hezkuntza bat izateko. Ezin izango duzu gustuko duzunean aritu.



Orain, hezitzaileak eskatuko die eskumuturreko zenbaki bera dutenekin taldeak egiteko. Talde bakoitzak bozeramaile bat hautatuko du. Hezitzaileak bozeramaile bakoitzari emango dio bere zenbakiari dagokion nortasuna azaltzen duen testua, eta galdera hauek, erantzuteko:

1. Nola sentituko nintzateke nire bizitza horrelakoa balitz?
2. Orain ditudan eta gozatu ditzakedan gauzetatik, edo etorkizunerako ditudan aukeretatik, zein ez nuke edukiko baldintza horietan biziko banintz?
3. Bidezkoa al da bizitza tokatu zaidan egoera hau? Zergatik?

Taldeek galdera horiei erantzuten dietenean, bozeramaileek beren erantzunak partekatuko dituzte. Hori amaituta, eta erantzunen ildoari jarraituz, hezitzaileak azalduko die zer diren Milurteko Garapen Helburuak, gutxi gora behera hau esanez:

“Hain eskandalagarri zen munduko pobrezia, desberdintasun eta gose egoera, 2000. urtean, 189 Estatu eta Gobernuburuk Nazio Batuen Milurtekoaren Adierazpena sinatu, eta Milurtekoaren Garapenaren 8 Helburuak betetzeko konpromisoa hartu zuten, pobrezia eta gosea ezabatzeko lehengo urrats bezala. 2015. urtea hartu zen mugatzat: data horretan helburu horiek beteta egon behar dute. Honako hauek dira 8 helburuak:

1. Pobrezia gorria eta gosea eraztea.
2. Munduko haur gehienek Lehen Mailako Hezkuntza izatea.
3. Genero Berdintasuna eta emakumearen autonomia sustatzea.
4. Haur-hilkortasuna murriztea.
5. Ama-osasuna hobetzea.
6. Hiesaren, paludismoaren eta beste gaixotasun batzuen aurka egitea.
7. Ingurumen-iraunkortasuna bermatzea (Natura babestea).
8. Garapenerako Munduko Elkartea sustatzea (elkarrekin eta lankidetzan aritzea pobreziaaren aurka).

Baina benetan, agintariek ez dute ezer edo ia ezer egin helburu horiek lortzeko, eta are gutxiago orain, atzeraldi ekonomikoan gaudela. Urteak pasa dira eta gauzak berdin edo okerrago daude.”


Azalpen horren ostean, hezitzaileek taldeei eskatuko die munduko 189 agintariei gutun bat idazteko. Gutun horren bidez azalduko diete zer pentsatzen duten beren konpromiso faltaz, eta 5 arrazoi emango dizkiete lanari ekiteko eta hain garrantzitsuak diren helburu horiek betetzeko.

Jarduera 2: JUSTIZIAREN altxorraren mapa

Lehenengo taldeekin jarraituta, mapa bat egingo duzue, Justiziaren altxorra bilatzeko mapa bat egiteko. Altxorraren mapa sinboliko bat marraztuko duzue, eta bertan jarriko dituzue zuen ustez egin beharko liratekeen gauzak (ekintzak, portaerak, jarrerak...) munduan pobrezia eta gosearekin amaitzeko eta Milurtekoko Garapen Helburuak betetzeko. Pentsatzen duzuen gauza hauetako bakoitza hitz gutxitan laburtu. Gero, bakoitzari izaera bat emango diozue: hiri bat, herri bat, mendi bat, laku bat, putzu bat, bide bat, baso bat, urtegi bat, iturri bat, eta abar.

Hori eginda, gauza hauetako bakoitza marraztu eta **Justiziaren altxorraren** mapan kokatuko duzue, (esaterako, mapan jarriko duzu: *Laguntzaren mendia, Partekatzearen hiria, Boluntario izaeraren basoa, eta abar*).

Mapan markatu edo kokatu duzuen guzti hori altxorrera daraman bidea irudikatzen duen lerro baten bidez lotuko duzue. Bide horren amaiera X batez markatuko duzue, Justiziaren altxorraren kutxa non lurperatuta dagoen adierazteko.



Izan originalak eta sortzaileak Altxorraren mapa marraztu eta margotzeko orduan. Ea antzinako itxura eman ahal diozuen.

Talde guztiek mapa eginda daukatenean, hezitzaileak kide bat aukeratuko du ausaz, begiak estaliko dizkio zapi batez, eta gelan hau jartzen duen paper bat ezkutatuko du: **Justiziaren Altxorra**.

Taldeen parte-hartzerako txanda bat ezarriko da. Txanda bakoitzean taldeak mapan dituen argibideetako bat bakarrik esango du; hitzaldia amaitzen duenean, beste taldeari egokituko zaio bere argibidea ematea.

Talde baten txanda denean, argibide zehatz bat eman beharko dio begiak estalita dituenari; gelan altxorra ezkutatuta dagoen lekura bideratzeko (asko jota, 4 pauso emateko esan ahal izango zaio), esaterako:

— *“biratu ezkerretara guk nahikoa esan arte, eta gero 3 pauso eman...”*

Agindu hori eman ostean, adierazten zaizun pauso kopuruaren ondoren, beti esaldi hau gehituko da:

— *“...norabide horretan...”*


Eta talde bakoitzak beren mapan idatzitako gauzetako bat esango dio, eta ezin izango dute aurretik beste talde batzuek esandakoa errepikatu, esaterako:

— *“... Laguntzaren mendira helduko zara.”*

Kideak gelako objektoren batekin estropezu egiten badu, edo beste barik ukitzen badu, kanporatuta geratuko da, eta ausaz hautatutako beste kide batek ordezkatu du, eta geratu zen leku berean jarriko da. *(Kasu horretan, hezitzaileak altxoraren lekua aldatuko du.)*

Hurrengo taldeari egokitzen zaionean argibidea ematea, kontuan izan beharko du begiak estalita dituenak ezin duela zuzen joan, edo norabide berean, 4 pauso baino gehiago eginez. Izan ere, balio horretako altxor bat bilatzea ez da inoiz bide zuzena eta erraza; askotan sigi-saga ibili behar da, aurkitzeko.

Begiak estalita dituenak altxorra aurkitzen badu, eta oraindik ere talde batzuek beren mapetan jarritako gauza berriak partekatzeke badituzte, beste kide bat hautatu eta gauza bera egingo da.



Bihotzeko otoitza

Kaixo Jesus,
lagun, anaia
eta Jainko maitea.

Zein ondo sentitzen naizen...
norbaitek laguntza ematen didanean bihotzez,
norbaitek bihotzez entzuten didanean,
norbaitek bihotzez hitz egiten didanean,
norbaitek bihotzez harrera egiten didanean,
norbait nigatik kezkatzen denean bere
bihotz barruan naukalako,
norbaiti bihotzak min ematen dionean ni sufritzen ikusita,
norbaitek bere denbora bihotzez eskaintzen didanean.


Horrela maite nauzu zuk, Jesus.
Zuk esan zenuen esaldi bat ez nuke inoiz ahaztu nahi.
"Egin besteei besteek zuri egitea gustatuko litzaizukeena."
Zure Jesusek bihotz handiko pertsonak izan gaitzezen nahi du.
Nola aldatuko litzatekeen mundua denok horrelakoak izango bagina.
Zenbat min ematen diguten pertsona bihozgabeak,
hotzak, bihotz-gogorak eta berekoiak direnek.
Ez nazazu utzi horrelakoak izaten.

Bihotz oneko pertsona izan nadin eskatu nahi dizut.
Bihotzetik bizitzen lagundu nazazun eskatu nahi dizut;
zu nigan egunero baitzaude hor,
inguruan bizi diren eta egunero ikusten
ditudan pertsonen beharrizanei erreparatzeko.

Bihotz oneko pertsona izan nahi dut,
zu izan zinen bezala, Jesus.
Horrela inguruan ditudan
bihotzean arrastoa utziko dut.

¶ Eman kolorea zure otoitzari:

Bihotzez hartutako
konpromisoarekin



mundu hobe bat posible
bihurtuko duzu



Caritas

www.caritas.es